

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Urriak 10, 17, 19, 24, 26, 31	IKASGELA/ TOKIA	A3 gela, IVAP Errekalde Zumarkalea, 18 Bilbo
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	09:00-11:30
MATRIKULA EPEA	Irailaren 26ra arte	ONIRITZI EPEA	Urriaren 3ra arte
IKASLE KOPURUA	15	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 2. HE gaindituta izatea.
IRAKASLEA		MATERIALA	Ikastaroan banatuko da
DISEINUA	Labayru	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	3. HEko idazmen-probarako idatziak sortzen trebatzea. Idatzi horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
HELBURU ZEHATZAK	Azterketaren aurkezpena egin. IVAPeko idazmen-probaren balorazio-irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna. Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu. Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin. Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin. Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrizkoak diren akats larriak aipatu, aholkuak eman eta autozuzenketa bultzatu.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da 3. HEko idatziak sortu behar dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Talde txikietan lan egiten saiatuko gara.
- Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.

PROGRAMAZIOA

1. saioa:

C1 mailaren deskribapen orokorra egin.
3HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.
Iritzi-artikulu bat egin, azken eskola-egunean zuzentzeko.

2. saioa:

IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.
Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.
Iritzi-artikuluaren zirriborria nola egin azaldu eta ariketak egin.
Etzerako: gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulua idazteko zirriborria egin.

3. saioa:

Etxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu, zuzendu... denon artean.
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.
Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

4. saioa:

Gutuna: gutuna eta ofizioaren arteko desberdintasunez ohartarazi, gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborria, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...
Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
Etzerako: gutun-eredu desegoki bat eman eta zuzendu.

5. saioa:

Etxean zuzendutako gutuna, guztion artean komentatu edota zuzendu.
Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.
Aprobetxamendu-proba.
Etzerako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulua zuzendu.

6. saioa:

Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.
Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.
Azken gomendioak eta birpasa ariketak.
Balorazioa.

3. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioan eskatutako proba neurtu eta baloratuko da.

**IKASTAROAREN
BALORAZIOA**

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

**ZIURTAGIRIA:
APROBETXAMENDUA**

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

145 €**PREZIOA**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. Zk.